


ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

194n. zenbakia / martia/epailla
1995



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



TXOMIN AGIRRE

- ELEBARRIGILLEA
- EUSKALTZAINA
- ABADEA

EUSKAL-ERRIKO SANTUAK

Orain dala denpora gitxi "Santoral Vasco" deritxon liburu eroso ta mamitsua argitaratu dau gure lagun Jesus Maria Aldai, mixiolari klaretiarrak. Egileak berak diñoanez. azken amarkada oneetan, Euskal errian izan dan kultur berbizkundean, merezi dabe leku bat Jaungoikoaren hideetan eta lagun urkoaren serbitzuan bizi eta il ziran gure erriko seme-alaba jatorrak. Izan ere, Jaungoikoa eta kristautasuna sakon-zakoneraño sartuta dagoz gure Erriko kulturaren. Eta gure erritar askok eta askok era miragarrian bizi izan dabe fede esperientzia ori.

Egia esan, arrituta geratu naz Euskal-Erriko ainbeste santu, doatsu ta Jaungoiko-serbitzarien bizitzak irakurtean. Zeatzago esateko. Euskal-Errian 14 santu, 38 doatsu doguz, eta beste 82 doatsu izateko bidean.

Liburu onetan agertzen diran doatsu-eginbarri eta doatsu izateko bidean doazanen arteko asko ta asko 1936-39ko "anaiarteko gudan" milizianuek afusilatua izan ziranetakoak dira. Au da, zoritxarreko "anaiarteko guda" triste ori sortu zanean. gure lekaide-lekaimeok Espainian zearreko konbentuetan subertatu ziran eta an afusilatu ebezan milizianuek. Euren bizitzak eta eriotzak benetan arritzekoak dira. Eta geien baten abade edo erlijiosoak ziralako il ebezan. Baina oneek altaretan dagoz edo altarako bidean.

Alan ere, badira gure artean beste abade ta praile batzuk, euren bizitzan eta eriotzean zintzo be zintzo jokatu ebenak eta "anaiarteko guda" orretan afusilatua izan ziranak, baiña gerrea galdu ebenen alderdian subertatu ziralako, aibeste denporan aitatu ere ezin eikezanak eta oraindiño euren kanonizaziño prozesuak asi barik dagozanak. Zeatzago esanda, badira gure artean 16 abade ta praile euskaldun, Francoren soldaduek afusilatu ebezanak. Eta, oraindiño altaretara jasoak izan ez arren, nik uste dot onezkeri merezi dabela euren izenak gogoratzea omenaldi lez. Ona emen:

D. Santiago Lucus Aramendia, 1898'an Naparroako Pitillas'en jaioa eta 1936-IX-03'an Urdiano'n afusilatua.

D. Gerbasio Albizu Bideaur, 1871'an Errenterian jaioa eta 1936-X-07' an Hernani'n afusilatua.

D. Martin Lekuona Etxebeguren, 1907'an Oiartzun'en jaioa eta 1936-X-07'an Hernani'n afusilatua.

D. Jose Adarraga Larburu. 1881'an Vilabona'n jaioa eta 1936-X-17'an Ondarreta'n afusilatua.

D. Jose Aristimuño Olaso, "Aitzol", 1896'an Tolosan jaioa eta 1936-X-18'an Hernani'n afusilatua.

D. Jose Sagarna Uriarte, 1911'an Zeanuri'n jaioa eta 1936-X-20'an Larruskain'en (Markina'n) afusilatua.

D. Alejandro Mendikute Liceaga, 1891'an Altza'n jaioa eta 1936-X-23'an Hernani'n afusilatua.

A. Jose Otaño Mikelez. Mariaren Biotzaren erlijiosoa, 1898'an Lerga'n jaioa eta 1936-X-23'an Hernani'n afusilatua.

D. Jose Joakin Arin Oiarzabal, 1875'an Villabona'n jaioa eta 1936-X-24'an Oiartzun'en afusilatua.

D. Leonardo Guridi Arrazola, 1896'an Oñaten jaioa eta 1936-X-24'an Oiartzun'en afusilatua.

D. Jose Markiegi Olazabal, 1896'an Deban jaioa eta 1936-X-24'an Oiartzun'en afusilatua.

D. Jose Ignacio Peñagarikano Solozabal, 1872'an Etxebarria'n jaioa eta 1936-X-27'an Oiartzun'en afusilatua.

D. Zelestino Onaindia Zuloaga, 1898'an Markiña'n jaioa eta 1936-X-28'an Oiartzun'en afusilatua.

D. Jorge Iturricastillo Aranzabal, 1902'an Markiña'n jaioa eta 1936-X-28'an Oiartzun'en, Artikutzako bidean, afusilatua.

A. Antonio Bombin, Peru'ko frantzizkotarra, Anguziana'ko frantzizkotarren serafiku ikastetxean irakaslea izan zan. 1936'an bere gorpua erailda agertu zan Laguardia inguruan.

A. Leon Urriaga Elezburu, karmeldarra, 1888'an Zaldibar'en jaioa eta 1937-V-19'an Etxanon, Larra'ko konbentuko baratzean afusilatua.

Eta abade ta fraileon ondoan, euron gotzain eta defendatzaile izan zan D. Mateo Mujika, Gasteizeko Gotzaiña, gogoratuko neuke. D. Mateo Mujika ez eben afusilatu, baiña Franco'ren "mobimentu nazionalaz" ados egon ez zalako, erbesteratua izan zan.

Iparaldeko Cambo-Les Bains erritxoan bizi izan zan ainbat urtez, arik eta bere zaartzaroan Zarautz'era itzuli arte. Eta, an erbestean egoala, afusilatutako abade-fraileon eta espetxeetan eta erbesteetan egondako abade ta fraileen izen ona defendatu eban "Imperativos de mi conciencia" deritxon dokumentan.

Zeatzasun guztiok "Historia General de la Guerra civil en Euskadi", bostgarren tomoan jaso ditut.

Goztzen, abade ta praile onek ere egunen baten altaretan ikusi nai geunkez euren bizitza zintzo eta eriotz arrigarriakaitik. Euren pekatua Jaungoikoa eta Erria maitatzea izan zan. Orregegaitik izan ziran afusilatua, espetxeratuak edo erbesteratuak.

Edozein modutan ere, badakit Jesus Maria Aldai beste liburu bat atarateko asmotan dabilana. Liburu orretan agertuko ditu aitatu ditugun 16 abade ta fraile oneen eta beste askoren fede testigantzak. Orretarako dokumentaziño ugariaz jabetu da eta dagoaneko lanean diardu.

Oneen ondoan ipiniko neukez baita beste milaka pertsona on eta zintzo, Durango eta Gernikako bonbardaketan edo gure mendietako frentetan edo kanposantuetako orma kontretan edo bide ertzetan erru barik il ebezanak. Guztiok, ziur nago, Jaungoikoak bere ondoan izango ditu. Orregaitik, ba, Jaunaren aurrean bitarteko izan dakiguzala eta gure bizitzetan ejenplugarri.

KRESALA

AURKEZPENA

Gaurko izlaria Prieto Urrutia'tar Iñaki da, eta aukeraturiko gaia, Txomin Agirre'ren "Kresala" elebarria aztertzea.

Euskaltzale sutsu au, asmalari edo injiñerua da eta ikastearen azken egitasmoa euskeraz egitea aukeratu eban, orrek euskaltzale benetakotzat bereizten dau.

Neuk be, neure garaian egin bear izan neban dalako egitasmoa, eta ziñez diñotsuet, dalako ekintza ez dala auntzaren gaberdiko estula, ez urrik emon be...! Orretarako euskera ondo ta zeatz ezagutu bear da, bestelan ez dago olako egiterik.

Baten batek bere buruari itaunduko dautso, "asmalari izan eta elerti arloko gai bat aukeratu...? Bai, Jaun-andreok, asmalarioi be zenbakien legortasuna itzita, elertiaren amesen mundutik ibiltea atsegin yaku. Bai, zenbakien osagarri ederra da elertia, eta eresia. Basamortutik dabillinari atsegin yakoz larradien eta iturrien margo ta ezotasunak.

Entzun dagigun ba gaur, asmalari bat zelan izan daiteken ameslaria.

KRESALA

BIZKAIERAZKO LITERATURA EREDUA LIBURUAREN IRUZKINA

GAIK

- 1.- Txomin Agirre, izena, izana eta lana
- 2.- Esaten dana
- 3.- Idaztandaketa eta egiturea
- 4.- Arizaleak
- 5.- Azken eritxia
- 6.- Bibliografia

1.- TXOMIN AGIRRE, IZENA, IZANA ETA LANA

- 1.1. Bere bizitza
- 1.2. Bere izakerea
- 1.3. Bere idazlanak

1.1. Bere bizitza

Errekarte ta mendi egal txoko baten dingilizka dagoan Ondarroan 1864.eko orrilaren 4an jaio zan Txomin Agirre Badiola. Amaren errian, sendi bear-tsu baten jaio zan. Aita, mutrikuarra zan, arotza, ain zuzen be. Antxe bizi izan zan, bada, koskondu arte. Bertan leen ikasketak egin ondoren, bere aitari artotz-bearretan laguntzen asi jakon. Amazazpi-amazortzi urtegaz, Bilboko arzipretea zan Mariano Ibargoengoitia jaunaren etxera joan zan onen laguntzaile izateko. joan egin zan edo, obeto esanda, eron egin eban arzipretea, Txominen mendu ona ta buru argia ikusita. Txikitatik abadetzarako jokerea izan arren, abade jainkozale aren ondoan, abade izateko gogoa erne zan Txominen biotzean. Ibargoengoitia beragaz egin ebazan latin-ikasketak. Eta ogei urte ebazala, 1884. urtean, Gasteizko Abade Ikastetxe barrira joan zan abade-ikasketak amaitzeko.

Iru urte egin ebazan Gasteizen. Antxe ezagutu eban Azkue. Aitagarría da berton beronegaz euki eban artuemon estua, naiz eta izakera eta gizarte maila ezbardinetakoak izan. Arrezkero lagun andiak izango ziran beti. Abadegaitzako azkenengo urtea kanpoan egin arren, gaixorik egoalako edo, 1888. urtean, 24 urtegaz, abade egin zan eta, bere leenengo mezea Urkiolan urte aretako orrilaren 26an emon eban.

Meza barria emon eta, berealaxe, Karrantza alde-ra bialdu eban. Baina ile batzuk baino ez ebazan egin Karrantza aldean, bada, Karmeldar lekameek Zumaian dauken ikastetxera bialdu eban, ango kapi-laua izateko, il arte, ain zuzen be.

Bizitza lasaia eta joan-etorri gitxikoa egin eban. bizitza baketsu eta beargin egindako onek asko lagundu eutson gure izkuntzea eta bere baliabideak guztiz menperatzeko. Sarrítan erriagaz egon arren,

urterik geienak bakardadean eta isiltasunean emon ebazan, ordurik geienak ikasten eta idazten emoten ebazala, bere idazlanak landu eta biribiltzeko beste, beintzat.

Ainbat eta ainbat lan egin eban abadelanetan eta euskal arloan, sasoi areetako jende ospetsuagaz artuemonak eukiz. Gasteizen izan eban ikaskide, bere lagun mina izango zan Azkueri esker jakin dai-keguz Txomin Agirrerri buruzko zertzelada zeatzak. Txomin il zanean Azkuek beronen oorez egindako berbaldian, besteak beste, gaztaroko ainbat jazokera eta oroigarri aitatu ebazan eta. Bion artean urteetako eskutitz trukaketa ugariari esker be, ondarrutarraren benetako pentsakerea zein izan zan jakiteko gauza gara, onetarako Azkue bera iturririk onenatarikoa izanik, onena ez bada.

Urteen joanean, ainbat aldizkaritan idazlan ugari idatzi eban, au da: "Euskalerrriaren Alde" (Kanpion, Etxegarai eta Urkijogaz batera sortzailea izan zan); "Euskalzale"; "Euskal Esnalea" eta "RIEV" aldizkarietan. Beste alde batetik, 1918. urtean Eusko Ikaskuntak alkartearen Oñatiko leenengo batzar ospetsuan EUSKALTZAINDIA sortzeko erabagia artu zanean, antxe izan genduan Txomin Agirre batzarkide, euskerearen saileko taldearen zuzendaritzaz arduratu zala, gainera. EUSKALTZAINDIA sortuta, leenengo euskaltzainak Azkue, Kanpion, Eleizalde eta Urkijo izanik, gero, 1919. urtean gainerako zortzirak aukeratu ziranean, tarteko izan genduan Txomin Agirre. Ezin, baina, batzar askotara azaldu, makalik ebilen ordurako osasun aldetik eta luzaro barik, 1920.eko urtarrilaren 14an il zan Zumaiako kapeilau etxean eta bere azken berbea AMA izan ei zan.

1.2. Bere izakerea

Apala, baketsua, arduratsua, langilea, esanekoa, ona, eskuzabala, ezkorra, aldare onekoa... oneek eta beste asko erabili izan dira, batez be Azkue bere lagun minaren agotik, Txomin Agirrerren izakerea zeozelan zeazteko. Danon gaineratik, bearbada, apaltasuna azpimarratu leiteke; berau nondik etorkon asmatzen gatxa ez dala, apalak ziran bere erria, etxea, sendia... eta. Bein baino geiagotan, eguneroko ogia bereganatzeko bereak eta bi ikusitakoa ei zan sendi au.

Inguru-giroak, arrantzari osorik emondako erri bateko jendearen bearrizanak, urritasunak eta osterantzeko ezak egunero ikusteak, eragin aundia izan eban bere izakeran. Beti maitatu ebazan Ondarru,

bere oiturak, bizimodua eta, eta sentimentu onen adierazgarri KRESALA sortu eban.

Areez gain, beste oneek be aitatu geinkez: euskaldun ona, kristinau benetakoa, abade zintzoa, abade euskalduna, idazle jakituna, jatorra ta bikaina, beargin fina, gizon argia, zorrotza, zirtokaria, beti besteei laguntzeko gertu..., argi ta onaren jokabidea.

Besteak euskalduntzea eta kristautzea zan bere jokabidea. Arduraz maite ebazan Euskalerrria eta euskaldunak. Euskalerrria, euskerea eta euskal ekan-duak biotz-biotzean eroazan eta nongura zabaltzeko aaleginetan bizi izan zan.

Sasoi areetan be, euskera-munduan gorabera ugari egoan, batzuk eta besteen artean, eritxi ezbardin asko, batzuetan guztiz aurkakoak izaterainokoak. Txomin Agirre oneek euskerari kalterik baino ez eutsoena egiten konturatu zan eta beti ibiltan zan eritxiak bateratzeko aaleginetan, bakezale eta bakegille.

Egindako lanaren oredez ezer itxaron barik bizi izan zan, esker onari zein txarrari begiratu barik.

1.3. Bere idazlanak

Gorengoa zan Txomin Agirre, bai izkuntzearen mendekotasunaren aldetik, bai gaiak bizitasun eta idaztanka indartsu eta adierazkorraz garatu izanaren aldetik.

Mogelek XVIII gizaldiko Euskalerrria eta euskaldunak erakutsi euskuzan, Txomin Agirrek XIX gizaldikoak. Moguelen oinarrian, Anibarro eta gainerako idazleen lanez egindako bizkaierazko euskal literaturearen etxea Txomin Agirre da. Euskal literaturearen, euskera idatziaren ezaz oartuaz, ainbat lan egin eta argitaratzen aalegindu zan etxe ori ederto jazteko.

Txomin Agirre benetako leen euskal elebarrigilea dogu, orretan datza bere idazlan nagusien garrantzia, elebarri aldetik oso urri egon gara gure errian eta. Europako beste errialdeetan XVII gizaldian asita, arik eta XIX gizaldira arte txitean-pitean joan zan zabaltzen elebarria. Euskalerrrian, ostera, XIX gizaldiko azken-azkenera arte Txomin Agirrerren eskutik ez zan leenengo elebarria, eta bera bakarria baiño eldu, AUÑAMENDIKO LOREA 1897.ean, ain zuzen.

Txomin Agirrek, bere ospea berak egindako iru elebarriei zor dautse, baina KRESALA ta GAROARI, batez be. Baina onetaz gainera, beste idazlan laburragoak sortu ebazan.

Elebarriak, olerkiak, ipuinak, aldizkarietan eritxi idazlanak, sermoiak, itzulpenak... arlorik geienak ukutu ebazan. Sermoi mordotxua izan ezik, idazlanik geienak argitaratuta dagoz, bai aldizkarietan, bai liburuetan.

Olan, bada, elebarrietan:

AUÑAMENDIKO LOREA. 1987. urtean "Euskalzale" aldizkarian argitaratua. Bere leenengo idazlan luzea zan. Kondairazko elebarria, Erdi Aroko Euskalerrian kokatuta. Bizkaieraz.

KRESALA. Leenengoz "Euskalerrria" aldizkarian argitaratu zan, zatika, 1907. urtetik 1912. urtera arteko bitartean.

Itsastarren bizikera eta oiturak ezagutzeko berebizikoa dogu oiturazko elebarri au. Bizkaieraz.

GAROA. Leenengo biderrez ia osorik RIEVEN argitaratu zan, 1907. urtetik 1912 urtera bitartean. Menditar eta baserritarren bizitzan oinarritutako oiturazko elebarria dogu. Gipuzkeraz.

NI TA NI. Laugarren elebarri au egiten ziarduala, eriotzea eldu jakon. Erdi Aroko oinaztarren eta ganboatarren eztabaidak eta burrukak ziran gaia- ren oinarri. Gipuzkeraz.

Beste idazlan laburrago batzuk be idatzi ebazan, bai bizkaieraz bai gipuzkeraz. Bilduma naiko ugaria, osoa ez izan arren, Aita Onaindiak 1964. urtean egindako "ONDARRAK" liburuan aren idazlanik geienak dakarskuz:

Aldizkarietan idatzitako idazlan ugari ("Ibaizabal", "Euskalzale", "Euskal Esnalea", "RIEV"...).

Olerkiak: "Ai balekite", "Ama bat", "Sarako lorea" ...

Edeste errikoiak: "Maiton Itzontzi", "Anton Betozko"...

Sermoi ugari.

Itzulpenak: Azkueren lan batzuk eta Kanpionen "Larraldeko lorea" antzerki lana.

Kondaira lanak: "Larramendiren bizitzaren berri labur bat".

Erderazko lanak: bai itzulpenak eta bai bere lumatik urtendakoak.

– Abertzaletasuna.

– Euskaltzaletasuna.

– Kristautasuna.

– Euskaldun-sinistedun.

– Manikeismoa.

2.1. Aria

Mainasi ta Anjel itsastarren seme-alabak alkarrenganako ezkutuko erakarpena nabaritzen dabe. Euron gurasoek baina, bakotxak bere aldetik, ezkongai "onak" bilatu gura ei dautseez. Gurasoentzako maitasunak, arean a, Mainasi eta anjelek zer sentitzen daben, garrantzi aundirik ez ei dauka, eta ezkongai "onak", dirutsuak, idoro bear dautseez, euren bizitza-maila, etorkizuna zelan edo alan ondu ta ziurtatu daitekezalakoan. Baina baita gurasoon aldetik, euron bereratasunari, ondoizateari begiratzeari itzi barik be. Olan bada, Egurbideko Jose Antonio, Indianoa, Mainasiri atzetik jabilkola, ekin eta ekin, neskatoaren gurasoek, Txanogorri eta emazteak, euren andiguraz, alabearen etorkizuna Indianoari saltzen dautsoe, Mainasik ezer ez dakiala. Beste aldetik be, Anjelen gurasoek, Sardinzaar eta Tomasa Andia, Antoni Errotaren gurasoakaz, Mari Errota ta Matxin Koipe, Anjel kanpoan egoala eta onetaz ezer jakin barik, seme-alabon eskontzea berbatu egiten dabe. Mainasik onen barri dauanena, biotza urratuta dauala, Bilbora anka egiten dau. An neskame bearretan egiteko asmoaz. Era berean, Txanogorrik bere alabearen Indianoagazko eskontzea lacu aizetara errian zear aldirrikatzean, barri txar au Anjelen belarrietara eldu daneko, onek Antonigazko ezkontzeari baietzaa emoten dautso, ez baina bete-betea. Bien bitartean, Indianoak Mainasiri biotza, gurasoneakaz egin dauan lez, erio- si gura dautso. Baina onek, atsekabearen atsekabez, gurasoen asarrea eta guzti, ez dautso ezkontza oneri oneritxirik emoten.

Onetan, errian auteskundeak egiteko aldia dator. Alderdi nabarmen bestean esanguratsu bi agertzen dira: patxitarrak eta perutarrak. Peruren errikotasunaren ezaugarria dan aldetik, Peruren aldekoak dira arranondotarrak geienak, oneen artean, Anjel eta bere aita Sardinzaar. Baita Mainasiren aita Txanogorri biotzez beinik bein be, biotz berberori Indianoari salduta auki arren. Ostera, Patxi aberatsen ordezkari lez agertzen danez, erriko aberatsak eta andikiak onen alde dagoz, au da, Indianoa eta antoni Errotaren gurasoak, esaterako. Errian lazka-matazak sortzen dira. Gurasoek leengo baten berbatua, orain-

2.– ESATEN DANA

2.1. Aria

2.2. Egileak adierazotako oituren zeazpenak, atalik atal

2.3. Mezu ideologikoak

2.4. Gaiak:

EUSKAL ASTEA

goan, eurok apurtzen dabe. Olan bada, sardinzaartarren eta koipetarren arteko eztabaideak, Anjel eta Antoniren arteko ezkontzea bertanbeera iztea dakar. Beste aldetik, Indianoak, Txanogorriren biotz salduaren truke onen autarkia eta alabea bereganatu gura badauz, Txanogorriko otsoari belarriak ikusita, bere onera etorri eta otsoa bere etxetik uxatu egiten dau, ardi zuria txarrik ukutu barik izten duala.

Josepa ta Artobero ezkontzen diranean –Josepa Mainasiren lagunik onena, minena dala– Bilbora doaz ezkonbarrietan, Mainasiri anjelen biotzaren taupadak bere alde jotzen dabela ezagutu eragiteko. Mainasiren poza! Baina poz ori laster ezerezean geldituko da. Itsasoan ekatx gogorra dakar. Onen ondorenez ondamentia euskal itsasalde guztian. Batez be, Arranonon, arrantzale asko ito dira. Oneen artean Sardinzaarren txalupakoak galdutzat artzen dabez. Mainasi au jakitean, biotza negarra eta saminak urtu bearrean dauala, Arranonora doa. Ildakoen aldeko eleizunetan negarretan negarrez dagoala, negar-malakoek bere begiak lausotu ta ara Anjel non ikusten dauan. Biotzak, ustebakoaren ustebakoz, irulia egiten dautso neskato gizagaixoari. Anjelek aita uretatik atarata beste txalupa batera urreratzea lortu eban. Txalupakoek biak gora jaso eta alantxe gaizkatu ei ziran eriotzatik.

Azkenean, Anjel ta Mainasi alkarregaz ezkontzen dira, umerik politenak eukiten dabez, ondasunak egin eta bizitza zorionsua egitea lortuko dabe. Beste batzuk, ostera, Indianoak, berak egindako zitalkeria batzuekaitik, erritik anka egin bear izango dau, inoiz be barriro ez itzultzeko. Antonio Errotak, bere andimandikeria edo aundikeriaz, neskazaar lotzea lortzen dau. Txanogorri eta Sardinzaar ginarrebakideek, urteak etorri uteak joan, zaartzaroan sartuta, bilobatuak arin-arin zelan azten diran ikusten dabela, olantxe dinoe: "gure zereginak munduon amaitu dira, laster gureak egingo dau eta!". Baina bizitzeak iraun badirau aurrera.

Areek ondo bizi izan baziran,
gu ondo bizi izan gaitezala.

2.2. Egileak adierazotako oituren zeazpenak, atalik atal

Etnologia, folklore aldetik, itsas errietako oitura, ekandu eta bizimoduaren barri damosku Txomin Agirrek bere KRESALA idazlanean. Berak ezagutzen eban bere sasoiko Ondarroa isladatzen dausku eta liburu onen balioa, bereziki, onetan datza, ain zuzen. Benetan iturri ederra etnologia eta folklore

aldetik, amaibako ondasundegia, euskerea, euskaldunak eta Euskalerrria ezagutu gura dauazanentzako. Oiturazko elebarria izan arren, badaukaz bere balio literarioak be.

- I atalean: Arrenak egin-esatea. (32.33. orr.).
Umeak kalean zear arrenez ta arimentzat eskatzen ibiltzen dira, arrantzaleak itsasoan estu dabilzanean.
Jaungoikoari edota Done bateri egiten jake arren.
- II atalean: Sagardaotokiak/ardaotokiak (36. orr.).
Sagardaotegiak ilunak, loi eta otzak izanez beste, upelak baino ez daukez, morko batetik sagardoa edan daikegula. Ardaotegiak, ostera, maaiak eta aulkiak dabez eta maaien gainean zamauak, bonbilak eta edanontziak aurkitu daikeguz. Toki oneek argitsu, bizkor eta garbiagoak dirala, besteak baino, beintzat.
Itsasarteko izenak (37 orr.).
Itsasoko kalei legorretako mendien izenak ipinten dautseez, kala orreetatik nongo mendiko tontorra ikusi, alango izena eukiko dabe kala orreek.
Arimena (40. orr.).
Eleiza batzuetan, gabaz ateak itxi baino leenago, arimen alde arren egiteko jotzen daben ezkila otsa edo soinua.
- III atalean: Ezizenak erri txikietan (43. orr.).
Erriko guztiei, sendi guztiko senideei, ezizenak ipinten dautseez. Batzuk antxinatik daroe ta senide guztiak ezizen batez ezagutzen dabez.
Ezizendunak besteei ezizen ori damotse.
- IV atalean: Gorria, gorria! (50. orr.).
Arrantzaleei, arrain moltzoa agertzean, deadar egin daroatsen deizaleak: Gorria, gorria! Arrain asko arrapatu ezker, arraina dagoala adierazo dauan legorretako deizaleari eskupekoa eta otzarakadatxu bat arrain emon daroatso txalupa jaubeak.
Aste Deuna (53.-54. orr.).
Eguen eta Beriku Gurenentan Jesusen Nekaldia ospatzen dabe, errian zeurreko kalerik-kaleko eleizkoi batez.
Arrantzaleak, mozorrotuta, Jesusen Nekaldia antzesten ibili doaz. Kale-

- V atalean: rik-kaleko onetan eurek abestu eta erriak eurei erantzun egiten dautse. Erriko Donearen I jaieguna (57.-59. orr.). Egun onetan etxeetan bazkari ederra besteko berezia egiten dabe. Goizean kalerik-kale batez eleizara Meza Nagusia entzutera, gero, eleizatik etxera bazkaria jaten. Arratsaldean, parrandan joan, irabazi izan daben guztia bertan zuritzeko.
- VI atalean: Estropadak erriko jaietan (64. orr.). Erriko jaiegunetako estropadetan irabazleari erriak zaragi bat ardao opari egiten dautso.
- VII atalean: Erriko Doneaaren II jaieguna (68.-69. orr.). SALINA-SALINA dantzea egiten dabe kalerik kale errian zear doazala. Erriak, dantzariet atzetik joakela, salina-salina maixua abestia abesten dau. Olan eguerdirarteko guztian. Arratsaldean ibaian antzarrari burua kentzekoa egiten dabe eta gero aureskua dantzan egin. Erriko Donearen III jaieguna (72. orr.). Pelota jokoak egiten dabez. Ez dago txistularirik. Aita arrantzaleei laguntzea (72. orr.). Itsasotik nekatuta datozen gurasoei euren seme edo alaba azitxuenek nasatik etxeraino otzarea eroaten laguntzen dautsee.
- VII atalean: Itsastarren emakumeen zereginak (74., 77. orr.). Errira sartzen daben arraina, txikia bada, berau garbitu ta gazitu egingo dabe. Andia bada, saltokira eroan mandazainei saltzeko. Atzerriko lantokietara bialtzen daben arraina oriotan erre ta upeletan tolostu egiten dabe. Eta errian eta inguruetan kalerik kale arraina saltzen dabe. Inguruetara arraina saltzen doazan emakumeei "astodunak" esaten dautsee. Errietan sartzen diranean onango au gedar eginez: "arrain ederrak eta merke". Etxerakoan, iluntzeko orduetan, urrengo au abestuz datoz:
"Itsasoak urak andi,
- X atalean: ez dau ondorik agiri: pasako nintzake andik maitea ikusteagaitik". Itsasorako gauza ez diranen zereginak (83.-84. orr.). Oneei bearra emoten dautsee, berton alogera laurdena edo erdia irabazten dabela. Lanabesaz txalupak urez garbitu, upeltxuak edan-urez betetu edo tretezetarako basoan urkuiluak edo amuak arrain andien janariz ipinten edo olango zereginetan ibiltzen dira. Aurreragoko egunetik ekarritako mokoloiak askatu, tretzak arildu eta urkuiletan sartu egiten dabezan artean be, abesten diardue eta zaarrek antxinetako ipuinek edo gaztaroko jazokerak esan daroez. Zeregin oneetan dabilzanak, mutil koskorak, gizon zaarrek eta gaisoak edo erdi gaisorik dagozanak dira. Itsasorakoan Andra Mariari Agur (88. orr.). Itsasora urtenkeran, Antiguako Amaren baseleizatxua ikusten dan tokian, txapela kenduta, Andra Mariari Agurra esan oi dautsoe arrantzaleok.
- XI atalean: Jaiegunetarako gizonetako jantziak (91 orr.). Narruzko oinetakoak, urdai zatiaz, kriseiluko orioaz edo izurderen sainaz noizean bein biguntzen dabezanak. Alkondara zuri garbia eta txintxonezko jaka-prakak.
- XII atalean: Bertsoak abesteko zaletasuna (100 orr.). Edonork, edozergaitik, edozertaz, edozerk eraginda, erriak itz neurtuak/bertsoak euskeraz egiten dauan zaletasuna eta buruzko erreztasuna.
- XIV atalean: Errosarioa esatea (110. orr.). Ilunabarrean gizadi aundia eleizara errosarioa esaten joaten da. Ezkontza konponketak. Errietan eta era baten, neurri bateraino, urietan be, seme-alaben ezkontzea konponketetan, alabenetan batez be, joko aundi be aundia eben gurasoek. Ezkongai ziranen gurasoen artean

ezkonsariak, ezkontza baldintzak, eta askotan nork nogaz ezkondu bear izaten eban be, ebazten ebezan. Jaki-na, ezkongaei joko txikerra itziaz.

XVII atalean: Emakumeen autuak (124.-125. orr.). Emakumeek, gizonen batzar-tokien antzera, euren jardun etxeak daukez. udako jai arratsalde ta neguko eguzki orduetan, etxeko atarian batzartxuak egiten ebezan, orain, ostera, ez ain-beste atarietan, ezin itzi daroe gabeko jardun-etxea, batez be neguan, sukalde baten inguruan dagozala, edozergaitik ekin beti ta eragin miin zorrotzari.

Emakumeen zereginak autuetan (126.-127. orr.).

Leen ardatz, goru ta matazuzkiak eroaten ebezan, orain, ostera, ez da inon be mataza, ardazketa edota arilketarik ikusten, ezta amets eragile diran lamina ta sorginen ipuin itzel bildurgarrikorik euren agoetatik entzuten. Gaur egun daroen zeregina, sarea edo galtzerdia konpontzea edo egitea, edo gona, praka ta atorra zaarren arabakintea oi da. Kriseilu barik, argi motel bat euki daroe, tarratadak josi, soin-aleak ezarri,... Asi orduko errosarioa esan daroe eta arrenak egin, neke preminetan dagozanen alde, ain zuzen.

XVIII atalean: Atxarteetarako osterak (132.-133. orr.).

Atxarteetara itsasoak jaurti oi dauazan ool eta egur zatiak eta an bizi diran atxarrainen bila joaten dira emakume, mutikoak eta itsasorako gauzaa ez diran aguretxuak. Inoiz erriko aundiki eta jauntxoak be, jan eta edanez eguna bertan emoteko asmotan joan doaz eta.

XXI atalean: Estropadak (154. orr.).

Estropadetan dirutza aundiak jokatzen dabez erriek, erri lez. Eurek euren burua inor ez legezkoztat eukita, irabazia eskuan eukelakoan zoro-zoro luzaroan egonda, dirutza aundiak baietz jokatu eta sarritan galdu be, galdu! Dirutzea, entzutea be, galdu!

Auteskundeetan (159.-160. orr.).

Nor zeinen aldera dabilen, adierazoteko, oinetan garbiro ikusteko lez, abarketa zurien gainean, batzuk urrengo au ipinten dabe: Bizi bedi urlia! (autagia), idatzita.

2.3. Mezu ideologikoak

Erromantizismoaren atzetik errealismoa etorri zan XIX mendeko erdialdetik XX mendea asi arte, gitxi gorabeera. Aurreko giroaren irudimen lanak baztertuko ebezan idazleek, errealitatea ispilatzen aaleginduko ziran artean. Oiturazko irudiak egin eta idazlaren barruan moralismoa sartu. KRESALA oiturazko giroaren barruan kokatzen badogu be, literatura erromantikotik urrago dagoala esan bear.

Maitasunezko gorabeera au akiakula baino ez da, idazleak erriko oiturak erakusteko eta era batera be, bere ideologia bein eta barriz irakurlearengana elduazoteko, ain zuzen. Dana erabilten dau Txomin Agirrek bere mezu ideologikoak azaldu daitezana.

Oiturazko elebarria dan aldetik ezin daikegu esan, bada, mezu ideologikorik euki ez daukanik. Ideologia, elebarrian zear, gogai didaktiko moralen zomorroz, eurrez agertzen jaku. Beste batzuk egonda be, iru ardatz nagusitan mamintzen da bere ideologia:

- Abertzaletasuna.
- Euskalzaletasuna.
- Kristautasuna.

Onez gain, badagoz beste batzuk be, beste beergoko mailakoak izan arren:

- Erri xeearen alde beti, bizibide apaleko jentearen alde.

Jauntxoak, aberaskumeek sarritan erriari uko eta erdalzaletu zentzu guztietan egiten ziran.

Erri xeeak, ezjakinagoa izan arren, bere ekandu eta oiturei eutsi egiten eutsen.

Bear bada, argien agiri jakuna *EUSKALDUN-SINISTEDUN* bikotearena izango litzakela esan geinke.

Elebarri onetan zear, eurrez agertzen dira orretarako ereduak. Batez be, XII atalean naiko agiri-agirian agertzen dan gogamena dogu. An bertan, euskalduna Eleizearen alde-aldekoa agertzen jakun artean, erdalerrikoak eta euren lagunak, ostera, euskalduntasunari destaina dautsoe eta Eleizeari gorrotoa.

EUSKALZALETASUNA. Euskaldunak euskeraz egin bear dau beti eta ondo gainera. Erderarik ez. Euskalerrria maitatu eta aldeztu. Danaren gainetik,

baina, kristau ona eta zintzoa, *EUSKALDUN-SINISTEDUN* bikotea zerturik.

Euskaldunon arteko gorabeerak ez dauz bat be gogoko eta euren aurka sutsu ta gogotik eraso egiten dau. Gure arteko anaitasuna egunean baino egunean geiago zindotu eta sendotu bearrean gagozala. Ara, gaur eguneko bizkaitar-gipuzkoarren arteko barregeiak, egin bear ez geunkearen adibidea!

ABERTZALETASUNA. Idazleak, euskaldunok euskaldun eta aske gure errian bizi izateko doguzan jatorrizko eskubideen alde egiten dau, orain dala 100 bat urte, gero! Euskaldun salduak –traidoreak- jauntxo eta aberatsen artean sartzen dauz, "bilbotarren", burgesiaren artean, ain zuzen: "euskerea salerosketarako ona ez dan gauzea dan artean, ez da inoiz bilbotarrentzako, euskaldun salduentzako, jauntxoentzako gauza onik izango. Saltzaileak euskeraz egiten beartuko bagenduz, ezer saldu gura balebe..." (99 orr.).

ERRIKOITASUNA eta ERRIZALETASUNA. Bere erriari, "Arranondoari" dautson maitasuna ezinukatuzkoa da. Erriko giroari buruzko, kanpoan bizi danaren erriminak bultzatuta edo, leenaldiko gogotak eta gomutapenak, oitura garbiak, ezizenak, sentimentuetako kutuntasuna, urretasuna bere lumeari uriolean darioz, gogobiziz eta gogotik edestu gura eta adierazo egiten dauskuzala. Irakurlearenganaino bere etniaren arlorik, osogairik, zatirik mamintsu eta guritsuenak biziro eldu eragin gura izan dauz, betiko galduko diralakotzat edo, bere idaztiaren bidez etorkizunean be gogoratu daiazan.

Baina ez deritxe oitura guztiei bardin. Esate baterako, kaleko olgeta eta jolasei. Erriko enparantzan dantzan egitea, aizedun, txakilo, buruarina izatea ei litzake eta. Jarduera edo jokabide oneri arimearen arerio baltz okerra, ikusgatx ta ezkutuko sare sendoren bat ete daukana, susmatzen dautso. Gazteek enprantzan dantzan egotean, Ama Mariari arrenak egiten ez ei dautsoezalako edo. Eta alderantziz jokatzea, arean da, ezparantzan dantzan ez egitea, norberaren burua ez erakustea, burua tentunduntzat artzea, ona eta zentzunduna izatea litzake, ostera. Oba pelotan egin edo arraun egin. Gaur egun, adibidez, guztiz oi dalakotzat artzen dogun gure etniaren ezaugarrietatikoa dan aureskua egitea begitan artzen dau egileak, ez egitea, barriz, begi onez ikusi, onena litzake eta. Ardao ona gogokoago dau olgetak baino. Gizaldietan zear Eleizea, batez be, gazteen oitura, olgeta, ekandu, joko, dantza, esakera, berbeta... jatorrizko bestean berezko eta kaltebako gauza askoren eragozle, jazarle eta, azken baten, zebatzaille, beste barik, bidebakoriko, izan da. Ikus-

pegi eta jokaera erratu onenpean egileak, aldi aretako abade dan aldetik, abade betekizunak oker uler-tuta, bere eritxi arina eta epaiketa atzerakoia egin eta azaleratu eginten dauz.

ATZERAKOIKERIETAN jausten dala.

GIZARTE MAILAK. Baina sozial edo gizarte mailan be, bikote orren izate argi ta garbia koordinada bardinetan kokatzen dauskuz, au da, euskaldunak euskerea eta euskalduntasunaren alde dagozanak, txiroak, beartsuenak eta gizarteko beeko azalekoak dira, arrantzaleak eta baserritarrak, bearginak eta besteentzako zerbitzari lez bear egiten dabenak, erri xeea, geiengo. Erri xeearen alde jokatzen dau.

Beste aldetik, aundikiak, aberatsak, txalupa ta lantokien nagusiak, iskilodunak, laterriko ordezkariak, autagaiak, Bilbaoko jauntxoak –burgesia– bilbotxarrak, beadar txarrak, Eleizea bera sartu barik, jakina, dira euskerea, euskalduntasuna eta Jaungoikoaren mezularien eragina su ta garrez, kanpotik ekandu txarrak ekarriaz, gudukatuko dabezanak. Onen adibide argia XII atalean be dager.

Beraz, gizarte mailak ezagutzea, aurrean esandakoagaz josita, elebarri onek dakarskun mezu garrantzitsuenetariko bat da. Arean da, aberatsak, jaubeak ederto be ederto bizi diran artean, eurentzako bear egiten dabeneak, arrantzale, baserritar eta bearginek, itzelezko nekaldi eta oinazeak jasan bear izaten dabez, eurek eta euren sendiak bizirik irauteko diru apurra atara daien. Olan elebarrian zear aundiki eta aberatsen aurkako adierazpenak ugari aurkitu geinkez. Nabarmen aundiko arizaleak edo jarduleak, beartsuak txarto jantzitakoak, geinetan jakituri urrikoak eta baina eleizkoiak izango dira, jardule aurkariak, ostera, aberatsak ederto apainduak, eta jauntxoak, jakituridunak –eleiztikoak baino gitxiagoak, jakina– Eleizearen aurkakoak dira. *DIRUA/ZINTZOTASUNA* bikote aurkari egizatuz.

URIA/ERRIA. Euskalerriko eta euskaldunen eredu jakin bat azaldu gura izan eban Txomin Agirrek, *EUSKALDUN-SINISTEDUN* bikotearena, ain zuzen. Bere sasoikoa izanda, arean da, aranatarren girokoa, oneek Euskalerrarentzako gurago eukeen euskaldun eredia azaltzen dau idazleak be. Pentsakera onen eraginpean oinarritzen da Txomin Agirrek egindako uts nagusienetariko bat: Euskalerriko zati garrantziko bat baztertzea, aintzat ez artzea, au da, Bilbo eta bere inguruko uri eta erri industrializatuak aintzako-tzat ez artzea. Inguru oneetan dagoana eta bizi diranak txarrak eta kaltegarritzat artuta saiestu eta aazteko bearrekoak ei jakozan. Jokabide onek ondorio larri batera garoaz: lurralde orek Euskalerrizat ez

artzera. Berarentzako ez egoan beste Euskalerririk arrantzale eta baserritarrek osotzen ebena baino. Pentsatu, gaurko eguneko etorkinen kopurua eta industrializazio maila ezagutu izan baleuz Txomin-ek!

POLITIKAGINTZA/AUTESKUNDEAK. Bere aburuz, gure errirentzako guztiz kaltegarriak, mingarriak dira. Naaste galgarriak erriari dakartsoezanak. Erriaren banatzaile erruduntzat artzen dauz. Itsas-dematik sortzen dan giroa baino mila bider okerragoa deritxo, areek sortzen daben giroari. Erri-tar guztien arteko grina txarak, anaitasunik zintzoenak urraturik, aspaldietako adiskideak alkarregaz asarratzea, betiko lagunak bata besteagaz mokoka jardutea, biotzak gorrotoz bete eta miingainak pozoin zitala eroatea baino ez dakarez, dana azpiko-koz gora jarten dabela. Gaizkinek, legelari-ek, politikari-ek –ustelek, itzez mugatzeko–, nabar samarrak diranek, gauza txar asko asmatu dabez gure arimak galtzeko, baina politikagintza baino txarragorik ez ei dabe asmatu.

EUSKALDUN-SINISTEDUN. Eleizkoiak dira bada, arizalerik gurenenak, eleizakoak, bein eta barriz, sinismen osoz eta batez be utsik egin barik bete oi dabezanak. Eleizkoiak diran ezker-eko, zintzoak, langileak, maratzak, berbea bete daroenak, jaso-koak, lerdenak eta ederrak. Eleizakoak jarraitzean, ekandu on zaarrei jarraituaz, euskaldun garbi biur-zen dira, euren irudia eredu biurtu eta arima donetsi edo santutu egiten jakela. Ori egiten ez dabenak, barriz, motzak edo adinilunekoak dira, edota txarke-riaren baten egileak, irakaste txarrekoak, alperrak, buru ta jaungoikobakoak, okerragoak, lotsagald-ak, miin txarrekoak, biotz gaiztokoak. Erritarra bada, ez da olangoa izango, gora gu ta gutarrak ta kanpora kanpotarrak!

141. orrialdean, baina, bere irakatsiaren aurka daitekera, jakinean argiro emoten dasku: "zer edo zer lortzeko edota norberaren alde egiteko askok edozer esaten dakie, esanaalak esateraino be, neurri-rik barik!. Elburu lortzeak, elburu ori lortzeko bi-deak legezkatat emongo baleuz lez.

Eleizearen jokabidea ez dau egileak inondik inora be aztertzen, bada, askotan be askotan aberatsen alde jokatu izan dau eta.

Aurreko azalpen guzti oneek bikotekako banake-tara garoez, au da, *ONAK* eta *TXARRAK* alde bien artekora, arean da, *MANIKEISMORA*. Ari be argi geratzen dala, *ONAK* eta *TXARRAK* nortzuk zein dirana.

LARREGIKERIAK. Bein edo bein, geiegikerietan sartzen zan, ain barruan eroan sentimenduak eragin-

da. Emakumeak bete bear dauan errola eredu zaarkitu eta atzerakoiari jagoko, gaur egun bete-bete-ean ezesten dogun emakumeenganako musulmanen jar-duerea lakoa.

Au da, etxeak ta eleizkoia, bere senarra, bere umeak, etxea ta eleizea, besterik ez daukana. Olan bada, emakumea zerutik jatsitako aingeru, ezta bai-no eztiagoa, biotz aundiko biurtzen dauala. Batetik emakumeen oorez eritxi atzerakoiak, bestetik adarra joten dabilelako edo, emakumeen minberatasuna mintzeraino eldu leiteke (VII atalean).

Egileak dakarskuzan mezuetariko beste bat, *ERLLIHO MORAL LARREGIKERIA* edo *SASI-LAIN-KOKERIA* biurtzen dana, askotan siniskeria dana, izango litzake.

Gauza txar guztiak, erritarrak txarrak diralako, edo otoitz egin ez dabelako, edo Eleizearenganako ardurabakokeriarik txikerrena izan dabelako jatorke-zana sinisteraino eldu izaten dira arizaleok (XI atalean, 93. orrialdean).

KRISTAUTASUNA/MORALISMOA. Gizakien jokabide okerra bein baino geiagotan salatzen dau. Arrokeria, gizon-ek irabazten daben dirua dala eta, erakusten dabezan buruarinkeria, ezinikusiak, txar-gureak, andikeria, zapokeria eta keria abar luzea salatuz, bere mezu edo irakatsi morala dakarsku Txomin Agirrerengan dagoan abadeak. Olan bada, bizitzan gizabide edo bizimodu okerren epaile zorrotz biurtzen da edeslaria. Sarri askotan gizabide edo bizimodu oker orreek zelan zuzendu leitekezan aolku ugari, baliotsuak emonez. Umeak zelan Jaungoikoaren legeen arabera ezi bear diran eta abar.

Gizon eta seme onaren eredu larregitua Anjelen-gan ipini eta bere bitartez erakutsiak, aolku moralak baztarrak emoten daskuz. Guraso eta umeek, danok Jaungoikoari bear dautsogun begirunea adierazoz. Etxeko ondasunak, aurreztearen bitartez, zelan jagon bear doguzan. Dirua, urrea eta aberastasunaren balio moral txarrekoak dirala eta, eurekaitik sortzen diran ainbeste gauza oker, naigabe, oinaze, zapokeria, grina gaizto, andikeria, lapurkeria, arrokeria,... eta keria abar luze argi ta garbi darakuskuz. Areek ez balitzaz, gizakiak askozaz obeak, zuzenagoak eta apalagoak izango gintzakezana ziurtatzeraino eldu da kontalaria. Ondasun material guzti-guztiak Jaungoikoak emonak dirala dirausku, berak emon eta kendu egi-ten dauz eta.

Jaungoikoaganako ardurarik eza, zaarrek jainkoa beti gogoan dauken artean, itsasorantzean otoitz egi-ten daben artean, gazteek, ostera, berbetan, ekandu onetaz ahaztuta dagoz, gero bai, estualditxuan dago-zanean, orduan bai Jaungoikoari erreguka.

Lagun urkoagaz ona izatea ez da naikoa izango, Jaungoikoagaz be ona izan bearrean gagozala gogoratzen dausku, bein eta barriz. Norberakeriak ezeztisiz, lagun urkoaren kalterako diralako, maitasuna, ontasuna eta onbideak aldarrikatzen dauz.

Ezkontza zibilaren aurka dago, Eleizearen lege ta asaben oitura zaarretatik aldentzea litzake eta, au Eleizearen aurkako iraintzat artzen dauala. Egileak Eleizea, erlijinoa eta abadeen aurkako guztia salatze-ko, elebarrian zear an-or-emenka eskua artzen dau, euren alde sutsu eta tinko, nainon eta nongura. Jesus, Jesus, mila bider!

Ama Mariari, be, zor dautsogun oneraspena eten barik azaleratzen dau.

Txomin Agirre, egilea, *SERMOILARI* trebe, zoli eta bikain biurtzen jaku elebarri onetan, bere zeregin didaktikoa ondo baino obeto beteten dauala. Irakatsi moralak eta sakonak, jakituriz betetako ggorakizun laburrak txitean-pitean sartzen dauz bere idazlanean. Baina sarritan, bere sermoigintza moeta berarizko orreri jagokon xalokeriarik, inozokeriarik agirikoenaz, gauzak bein eta barriri esaten dauskuz, irakurleak ume kokoloak bagintzaz lez.

2.4. Gaiak

Txomin Agirrek idatzitako elebarri au oiturazkoa dan aldetik, bere gairik nagusiena euskal arrantzaleen, erri xeearen, bizitzea, ekanduak, bizikerak eta gorabeerak azaltzea litzake. Berak dinoskun lez, inork ez dauz itsas barruetako arrantzaleen lanbide garratzak eta ibilbide leinargiak bear izango leukezan beste aintzakotzat artzen. Berak, liburu onen bidez, bertan berak autortzen dauanez, arrantzaleak, itsastarrak eta itsasaldeko erri bateko seme-alabak, Jaungoikoagaz batera, jaso eta goraldu gura izan dauz eta onetarako egin eban, geienbat, elebarri au (XXV atalean). Eurek ezagutuagoak, errukituagoak eta maitetuagoak izan daitezcan sortutako KRESALA. Zalantza barik, bere erria ONDARROA (Arranondo) goratu garan.

Bizitzea, gorabeerak, ekandu orreek azaltzeko, batez be, bikote baten –Anjel-Mainasi– arteko maitasun-gorabeeren inguruan jazoten dan eta berak garatu eragiten dauanaz baliatzen da. Eurek eta euren ingurukoen artekoen artuemon eta gorabeeren bitartez, arrantzaleen izakerea, oiturak, sinismenak eta bizitzea azaltzen dira. Erri xeearen alde beti.

Bere asmoetariko bat, bear bada, garantzitsuena ez bada, ezta gitxiagokoa be, erlijiotasunaren erredua

agertzea izan da, berau gai biurtzen dauala. Erlijiotasuna eta bere irakatsi moralaren bidez, didaktika eran edo, irakurlearen gizabidea arteztzea eta sendotzea lortzeko asmotan lebilke. *ONAREN* eta *TXARRAREN* arteko auzia.

Aitagarri dan beste gai bat Euskalerrria eta bere eskubide nazionalak aldeztzea litzake. Argiro be argiro bere alde agertzen jakula.

Gaia euskerea bera da, bizkaierrea, liburu au idazteko akiakula edo aiko-maikoa izatetik, idazpidetzat artuta igaroz, elburu izatera eta egi zertutzeraino burutz doa.

3.– IDAZTANKEREA ETA EGITUREA

- 3.1. Oiturazko giroa
- 3.2. Azalpenak eta edeslea
- 3.3. Egiturea
- 3.4. Zeazpenak
- 3.5. Alderaketak
- 3.6. Barriztapenak
- 3.7. Iperbolak
- 3.8. Aurkajarpenak
- 3.9. Kurtsiban idatzitakoak
- 3.10. Aditza
- 3.11. Joskerea
- 3.12. Iztegia
- 3.13. Alkarritzketak

3.1. Oiturazko giroa (kostunbrismoa)

Txomin Agirrek urteetan ikusitakoa, irakurritakoa edo gogoratutakoa batu eta eratu egingo eban, ainbat zeazpen ber idazlanetan sailkatuta ekarriko euskuzala. Erri xeea, beartsua, beargina, apala izango da, batez be, gaitzat artuko dauana; ainbeste zeaztasunez josita dagoan KRESALA liburu, oitura edo ekanduzko, azken baten, etnografiako altxor biurtuz.

KRESALA, erromantizismoaren aurka eregi zan errealismoaren azpimoeta dan oiturazko elebarrien giroan kokatu daikegu. Erromantizismoaren aurka egin gura izan arren, beronen eragina be izango dau KRESALAK. Giro aren barruan kokatuta, bada, elburutzat artu leitekezan urrengo oneexek azpimarratu geinkez:

- 1.– Irudimena albo batera itzita, errealitatea arakatu eta zeaztu.

2.—Oiturazko irudiak egin, ipuin eta kontaketak ez erabili.

3.—Moral kutsua ezarri idazlanei.

Abertzaletasunaren eraginez, baina, batzuetan erromantizismoaren kutsua, sakona gainera, igarten jako KRESALARI.

3.2. Azalpenak eta edeslea

Oituren eta onuen azalpenez beterik dago idazlana. Edeslearen esku artzea oso berezi eta garrantzi aundikoa da atal guztietan. Azalpenak oso ugariak izanez gain, xeetasun asko emoten dauskuz idazleak, onetarako aurkajarrenak eta paralelismoak eurrez erabilten dauazala.

Edeslaren esku artzea olan adierazoko geunke:

Batzuetan, irakurleari zuzenean berba eginez, oneri eritxia eskatuko baleutso lez.

Besteetan, gauza edo arazo batzuei buruz bere eritxi zuzena emonez.

Bein edo sarri, arizaleak erabilten dauz euren agoez berba egiteko.

Baina sarri askotan eta ugarien, edesleak berak egoerak eta jazokizunak zeatz-meatz adierazoten dauskuz.

Azalpenetan aditzak eta izenlagunak, ainbat bidez edota berba esangurakideak alkarren artean ipiniaren bitartez, alde batetik aberastasuna dakartso idazlanari, beste aldetik, baina, batzuetan, aspergarri biurtzen da liburuaren irakurketea.

3.3. Egiturea

Egituran, ariaren aldetik gogotan artuta, iru zati aurkitu daikeguz, era logiko baten eratuta. Oso egitura tradizionala, betidanikoa da,

aurkezpena — korapilotzea — amaieria

egitureagaz bat datorrelako. Au da:

- 1.—Gai eta arizaleen aurkezpena, irakurlea elebarriaren gaian girotuz. Asikera laburra. tesia.
- 2.—Arizaleen arteko gorabeerak eta era askotako jazokizunak azaltzen dira. Tesiaren garapena, luze, mila eredu eta adibidez egina.
- 3.—Ainbat arazo eta gorabeera izan ondoren, gauzak konpontzen dira, eta arizale nagusien ezkontza zoriontsuagaz batera amaitutzat emon leiteke elebarria. Amaitzeko, labuar, ondorio antzeko jazokera barregarriren bat edo beste.

KRESALA oso ondo lotuta eta osotuta dagoana argi dago, arizaleen eta jazokizun guztietan jarraipena ikusten dalako. Ezkuntzeak, idazlanean erabilitako idazkeran bere eragina itzi dauana be, argi be argi dago.

3.4. Zeazpenak

Oso zeatzak. Batez be, tokien eta lagunen zeazpenak egiterakoan nabaritzen da. Idazlea itsastarra zala salatuz.

3.5. Alderaketak

Oso ugariak dira liburuan zear, sarritan gauzak barriz kontaktzen dauazala. Geienetan gogai bat adierazoteko erabiliak.

3.6. Barrizkapenak

Zeozer indartzeko erabilten dira. Geien geien agertzen dauazanak:

— Izenlagunak (bi edo iru biderrez).

— Aditzak (infinitihoan, batez be).

— Eritxi/gogai baten adierazpenak.

Batzuetan, ainbeste barrizkapenek aspergarri biurtzen dau irakurketea.

3.7. Iperbolak

Ugari izan ez arren, oso geituak agertzen dira beti.

3.8. Aurkajarrenak

Arizaleen artean agertzen dira, euren izakerak aurrez aurre jarteko. Au dala eta, liburuan zear nortzuk diran arizale *ONAK* eta *TXARRAK* argi be argi lotzen da, *MANIKEISMOARI* bidea emonez.

3.9. Kurtsiban idatzitakoak

Erderakadak adierazoteko. Batez be, arizale txarrenak erabilten da idazkera moeta au. Batzuetan, aditzen laburpenak adierazoteko be.

3.10. Aditza

Danetariko aditzak erabilten dauz. Oso aberatsa da erabilera au:

Leen aldia-irugarren pertsona: azalpenetan erabilten dau.

Beste aldi eta pertsona guztiak: alkarrizketetan.

ITANOA: berak itzaurreen autortzen dauskuenez, Ondarroan aspaldian galduta dagoala eta, orregaitik ZUKAZ idazten dau, elebarria errealagoa, jatorragoa egiteko.

Berorika: begirunezko alkarrizketetan.

Idazleak alantxe eginez, edertasuna eta aberastasuna damotso idatziari, aditzak daukazan aalmen guztiak erabiliz.

3.11. Joskerea

Oso ona da, gorengo mailakoa. Jatorra eta zuzena, berezko dotoretasun, erreztasun eta naturaltasunez erabilia. Esaldiak, batzuetan, oso luzeak diran arren, joskera arauak ederto baten beteten aaleginduz Txomin Agirre. Berezkotasuna dario elebarrian erabilitako joskerari, bada. Ondo jagoten eban izkerea eta berba ta esakeren garbitasun eta jatortasunaz oso arduratuta ibiltzen zan. Larramendiren eragina agiri agirian dago sarritan. Erriko berbetea, erri izkerearen arimea ederto be ederto jaso ta bertakotu eban Txomin Agirrek. Euskera garbia, errikoia eta bizia.

Arlo onetan maisuen maisua dogu, izkuntzearen bere menperatasunean.

3.12. Iztegia

Liburuan geien nabaritzen dan aberastasuna da. Bere iztegia, berba, esakera eta adierazpideetan guztiz aberatsa eta abegi aundiz landua da. Liburuan ez da berba asmatu rik igarten, aranatarren girokoa izan arren. Batzuetan, baina, Larramendik burututako berba asmatu ren bat edo beste erabili ebazan.

Gogaiak ta adierazoteko euskereak berrez daukazan beste aalmenez baliatu zan idazlea.

Itsastarren arloetako iztegi bereziki aberatsak lagunduta, itsastarren giroa zeaztasun eta trebetasun guztiez dakarsku.

Berak be, badaezpadan edo, irakurleak ezagutu ez eikeazan berben iztegi laburra geitu eban.

3.13. Alkarrizketak

Itsaldeko errien bizibidea ondo be ondo ezagutuz, berau libururatzekoan ez eban orrenbeste buruauste undirik izan, mundu ori maisukiro ispilatuz.

KRESALARI, indarra, bizitasuna, jatortasuna, gatz ta piperra, azken baten, dariozala esatean danok bat gatoz. KRESALA idazlana bera, bizia, benetakoa edo egiazkoa eta garratza dalako zati askotan. Txomin Agirrek, eguneroko gorabeeretatik artutako irudi bizien alkarrizketak, eguneroko bizitza arrunta, berak ikusi eta sentitu ebazan lez, ain zuzen, libururatzeta ondo bai ondo jaretsi eban. Alkarrizketa batzuk grabatuta balegoz lez dagoz idatzita, berak itsasertzeko bere erria dan Ondarroan sarri askotan entzungo ebazanaren argibidetzat.

4.— ARIZALEAK

- 4.1. Guztien izenak eta bakotxaren eginkizun elebarriaren barruan
- 4.2. Garrantzizko arizaleen ezaugarriak eta eurek agertzen dabazan eredu nagusiak.
- 4.3. Arizaleak zeazteko erabilitako baliabideak.
- 4.4. Arizaleak, mezu ideologikoa agertzeko bidea.
 - Ideologiaren azalpena.
 - Moralismoa.
 - Didaktikotasuna.

4. ARIZALEAK/JARDULEAK

Arizale nagusiez gain, bigarren mailakoek be badauke joko aundia. Danoi bizitasuna eta idealismoa dariezala. Batzuk, bizi biziak argiro dirala, Brix eta Tramana, esaterako, euren arteko alkarrizketen bitartez errealitatearen ispilu biurtzen dira, Ondarroako portuko giroa ezin obeto jasoz. Orokorrean, danak naiko lauak dirala esan geinke.

Arizale txarren eta onen banaketa argi argi liburuan zear izanda, MANIKEISMO nabaria agirian lotzen da. TXARRAK, erdaldun edo sasi-euskaldunak, ez lar kristauak eta Euskalerrria eta euskerea gitxiesten dabenak. ONAK, ostera, euskalzale, kristau on eta abertzaleak, idazlearen agoa (XII atalean).

4.1. Guztien izenak eta bakotxaren eginkizuna elebarriaren barruan

Mainasi: Leenengo jarduletari bat da, aintzindaria, elebarriaren bilbe edo arijokoa bera eta bere maitearen inguruan garatzen dau egileak. Alaba, andra eta ama onaren, emakume zintzo eta garbiaren eredia.

Anjel: Onen maitale, leenengo eragiletari bat da, aintzindaria. Onen eginkizuna seme eta gero, senar eta aita onaren, gizontasunaren eredia da.

Indianoa: Leenengo arizaleari bat da. Bere jardurea aundiki doilor, arregurabakoarena da. Bere gizabidean Anjelen aurrez-aurrekaria da. Mainasiren biotza, ondorio on barik, jaresten aalegintzen dana. Gaizkilearen irudi biurtzen da.

Antoni: Leenengo arigiletari bat da. Bere betekizuna Anjelen andragaiarena da. Baina, bai emaztegai egoki ez danarena, aundikia, arroputza, andigurakoa eta gangarra danarena baino. Andra txarraren irudi-eredua. Mainasiren aurrezkaria.

Txanogorri: Bigarren mailako arizalea. Mainasiren aita, Indianoagazko, andigurearen-andiguraz, Mainasiren ezkontzea konpontzeko guran dabilena, gero, baina, damututa berak egindako urratsetan atzera egingo dauana. Aita burubakoaren irudia.

Sardinzaar eta Tomasa Andia: Anjelen gurasoak dira. Semearenzat emaztea aukeratzen dabe, Antoni, egokia ez dana. Bigarren mailako arizaleak dira. Errian auteskundeak dirala eta, Antonigazko semearen ezkontzea bertan behera izten dabenak. Anjelek geroago, itsasoan, aita erioaren atzaparretatik onik atarako dau.

Josepa: Mainasiren lagun mina. Leenengo mailako arizalea, joko aundirik izan ez arren. Mainasiri danetan laguntzen dautso eta bera izango da Mainasiren zorionaren ate eta mezulari.

Artohero: Joseparen ezkongai eta gero, senarra. Mainasi eta Anjelen laguna. Berau irugarren mailako arizalea dogu.

Mari Errota eta Matxin Koipe: Antoniren guraso aundikiak eta andigurakoak. Euren arropuzkeriak galduko dau eurek eratutako Anjelegazko Mainasiren ezkontza. Aundikien alde dagoz beti. Irugarren mailako arizaleak.

Tramana eta Brix: Erriko astodunak edo arrain saltzaileak. Biraoak parra-parra botatekoak, beraz, miin gaiztokoak, beti euren artean irainka, mokoka eta agirika egiten dabenak. Erriaren abotsa dirudie eta berau ordezkaten dabe. Bigarren eta irugarren arteko mailako arizaleak.

Kitolis: Itsasgizona, arrantzalea, irugarren maila-

ko jardulea elebarri onetan. Baina egileak berari oso atal berezia (XI atala) eskeintzen dautso. Bertan, Kitolisek itsasoan bere semea galtzean nozitzen dauan ondiko garratza biziro eta sainez edesten dautso.

Peru eta Mikol: Itsasgizonak, irugarren mailakoak. Kitolisen jazokerearen baino leenagoko euren arteko eztabaidea sarrera antzera edo egiten dabenak.

Bedar txarrak: Izkiloduna, Bilboko oial saltzailea, itsasontzi agintaria, Indiano bera eta lantegiko nagusia. Guzti onek txarra eta txarkeriearen eredu doguz, erria eta erritarren aurkako aundiki bizi-biziak. Indianoa izan ezik irugarren mailako arizaleak doguz.

Itsasgizona: Irugarren mailako arizalea dogu, bedar, txarren aurkaria. Euskaldunen eta erlijioaren aldele sutsua.

Bilboko etxeoandrea: Irugarren mailako arizalea, Mainasiz, onen atsekabean, errukitu eta berari, zentzunezko onuen bidez, laguntzen aalegintzen dana.

4.2. Garrantziko arizaleen ezaugarriak eta eurek agertzen dabezan eredu nagusiak

Arizalerik garrantzitsuenak, danak eredu nagusiak dira-arketipoak. Onak diranak, oso onak izango dira (Anjel, Mainasi,...) eta txarrak diranak, bada, oso txarrak (Indianoa, Antoni,...). Arizaleak, onak izateko, leen aitaturako iru baldintza nagusiak, au da:

- Kristautasuna.
- Euskalzaletasuna.
- Abertzaletasuna.

bete bear dabez. *EUSKALDUN-SINISTEDUN* bikoitea egiztatuz. Txarrek, ostera, ez dabe iru baldintzotatik bat be beteko, *MANIKEISMOARI* bidea emonez.

Mainasi: Maratza, garbia, otzana, zerutik jatsitako aingerua, ezta baino eztiagoa, biotz aundikoa, ongielea, etxeoia eta eleizkoa. Oso ona izatearen eredu nagusia.

Anjel: Mutil langilea, gurasoenganako begirune aundia dauana, euskaldun zintzoa, kristau ona. Oso ona izatearen eredu nagusia.

Indianoa: Euskera gaiztoa darabilena, aberatsa eta diruzalea, doilorra. Oso gizaki txarra izatearen, gizonetzkoaren, eredu nagusia azaltzen dautso.

Antoni: Arroa, diruduna, andigurakoa, gangarra. Oso txarra izatearen, emakumezkoaren, eredu nagusia jagoko.

Txanogorri: Diruaren menpeko, bere alabearen

zoriontasuna dukat baten truke saltzeko gertu legokena, aita buruarina, andigurreak lipar batez itsututa daukana, baina eleizkoia eta norberaren errua ezagutu eta onartzen dakiana, barriz. Jakituna izan barik, siniste onekoa eta biotz zintzoaren jaubea dogu. Aita apal, beartsu, buruarin eta bere akatsak eta utsak ezagutzen dakizanaren eredu nagusia dagerku.

Tramana eta Brix: Langileak, biotz onekoak, alkarren areiorik gogorrenak, eztena baino miin zoli ta zorrotzagokoak, berba eta miin gaiztokoak, beti burruketan diarduenak, agirikariak, baina biotzean, sakonean biotz onekoak, eriraren aldekoak. Danak bananduta dagozanean, eurok ostera, alkartuta, batuta. Erriaren abotsaren eredu agertzen jakuz.

Itsasgi:ona: Bekoki baltz samarrekkoa, itz latzekoa batzuetan, biotzean daukan guztia errez kanpora botaten dakiana. Oso arima leinargi eta onekoa, zuzengekeriearen aurka sendo egiten dakiana. Erriaren aldeze sutsuaren (egilea bera) lekua edo eredu nagusikoa da.

4.3. Arizaleok zeazteko erabilitako baliabideak

Geienak era zeatz-meatz baten bitartez adierazoten dauskuz egileak. Are zeatzago Mainasi eta Anjel, arizalerik garrantzitsuenak, onek elebarriaren oinarria diralako eta jarraitu bearreko litzakezan gizaki eredu bizi-biziak. Arizaleen izakerak geiago sakontzen dauz euren kanpoko itxurak baino, onetarako izenlagunak eurrez darabilzala egileak, ugaritasun au batzuetan aspergarri izan arren. Izenlagunak izakerak eta kanpoko itxurak zeatz-meatz azaltzeko guztiz berebiziko dirala, Txomin Agirrek onetan ondamugarria diran trebetasuna besteko maisutasuna agertzen dauz.

4.4. Arizaleak, mezu ideologikoa agertzeko bidea

Arizaleen ideologiaren aldetik elebarriaren osagai nagusiak oneexek izango litzakez:

- Ideologiaren azalpena.
- Moralismoa.
- Didaktikotasuna.

Arizaleak osagai oneek agertuko dabez. Arizaleak naiko arketipoak izankeran, oso onak ala oso txarrak izango dira. Pentsakera baten edo bestearen ezaugarri nagusi biurtzen dira.

Anjel-Mainasi bikotea ona izatearen benetako ardatz nagusia da elebarrian zear, beste edozein ari-

zaleren onespina edo gaitzespenaren erizpidea izango dalako. Arizale baten jarduera eta pentsakerea Anjel-Mainasi bikotearenakaz bat badatoz, arizale ori *ONA* izango da eta *TXARRA*, ostera, bardintasun ori beteten ez bada. Azken baten, eurak dira elebarri onen oinarria eta jarraitu bearke geunken gizaki eredu.

Edesleak ez dautse arizaleei eurak euretara jokatze askatasunik emoten, egilea orojakilea izatean, gauza guztien, ona ta txarren gainetik dagoalako edo. Arizaleak zer pentsatzen daben badaki, zer jazo, jazoten jaken dakian lez. Ez dauke pentsamendu sakon edo nortasun korapilotsurik eta txontxongilo batzuk izango baliatuz lez darabilz, bere mezu ideologikoak euren bitartez, berba leun eta artezaz, irakurleak bereganatu daiazan. Idazleak berak, arizaleen agoetatik berba, eztabaidak eta alkarrizketak erabilten dauazala, sermoiak egin eta mezuak eldu eragiten dauskuz. Beste batzuetan, barriz, egileak berak era artezean, aurpegira aurrez-aurre egiten dausku berba, leun-leunkiro baina argi ta garbiro, eritxiak eta moral aolkuak emonez.

Liburuaren azkenean, edesleak arizaleakaz berba egingo dau, irakurleari jazotakoaren barri emoteko.

5.- AZKEN ERITXIA

Aurrean esandako eta idatzitakoari zer gitxi geitu leitekio. Geitzekotan, bear bada, Txomin Agirrek darabilan euskera eredu. Nire ustez, bizkaiera batu barri dalako orren, BIZKAIERA LITERARIO orren oinarri-zutabea leitekena. Berari joskera eta aditz-jokoen aldetik alango kideko-alkartasuna susmatzen jako, eredu sendoa, ondo oinarritu eta tinkotua, berba batez esateko. Bere itzlauaren merezimendua ez dago iztegian, berak gauzak edesteko daukan eran baino. Erri euskerea ezagutzeko bear-bearezkoa dogu KRESALA. Bertan idatzitako alkarrizketa bizi, jatorrek euskaldun kutsu utsa damotsoe idazlanari. Erriak darabilan berbetea, erriko izketearen arimea gorengo mailako maitasunez jaso ta bertaratu eban Txominek. Dariozan jatortasun eta freskotasun orreek, errikoitasunaren ezaugarri bikainenak dira. Adierazgarritasuna dariola, esan geinke. Nire eritxiz, elebarri au balio aundi-aundikoa da, batez be, euskera eredu onean idatzi, irakurri, berba egin... bizi gura dogunontzako. Euskera ederra, esakera jatorrak,... maisutasunez atonduta, berak idoro gura izan eban erriko izkera landua eta dotorea jaresten duala.

Zer esanik be, iztegian erakusten dauan maisutasuna, aberastasuna eta berba bakotxa bere leku egokian kokatzeko eta erabilteko erreztasuna, joritasuna, garbitasuna, argitasuna ta zeaztasuna erakusten dauazanak. Ondarroako tokian-tokiko berbez josita dago KRESALA. Iztegiaren aldetik arazorik aundien bakarra izan leiteke elebari au ulertzeko, baina oztopo baino geiago, aberasgarria da. Berbak arduraz aukeratzen dauz. Euskeraz garbitasuna dau gogoko, baina berba asmatu barririk erabilateko ez da lagun, noiz edo noiz Larramendiren bidea artu arren. Erderakadak erabiltetik igeska dabil, euskerearen osin sakonetik euskal jatorrizko berba zaar-barriak bizitasunera azaleratuz dakarzala. Aor bada, beste euskalkietatik, gipuzkeratik batez be, ondo artutako berba moltzoa. Euskerea, aspaldiotan galdutako duintasunaz, onen iturburuetara joaz, jantzi gura daualakoa dago. Euskera errikoi eta aberatsa garatuz, izkerearen ontasunari egundoko garrantzia emon gura dautso, gogorengo mailara jasoteko asmotan. bizkaierazko eredu ezin ohea dogu KRESALA. bizkaierea bear dan lez aztertu, ulertu, ikasi egin eta maitatu bizkaieraz bizi gura dabenentzako irakurgai garrantzi aundikoa, gomendagarria eta naitaezkoa, itziezinezkoa.

Txandaka, aldizka, arteka, elebarria atalka aldizkari baterako idatzita balego lez agertzen jaku. Edo beintzat, ori susmatzen jako. Alantxe izanik.

Itsasertzeko kresal sundea igarten jako Txomin Agirreren KRESALARI. Ondarroako arteragoko gizaldiko azken urteetako oiturak, ekandu bizi-bizikiak eta bizimoduaren barri damosku, bere erriko bizimoduaren argazkia egiten dauala. Berak ondo be ondo ezagutzen eban itsastarren bizibide arrigarria, gogorra, latza, neketsua, beti itsasoagaz burrukan, makina bat bider itsasoan ondamera aurkitzen ebela. Arrantzaleen oiturak, jazokerak eta inguruak zeazten bardinge dogu Txomin Agirre, beti erri xeearen alde egiten dauala, eta au berau artzen dau KRESALA sortzeko oinarriztat. Berak, une ilezkor areek jaso gura izan ebazan, arrantzaleen ooretan.

Une goxoak, barregarriak, didaktikoak badaukaz be, laztasunek edo une garratzek be bere lekua dabe izan, XI atalean esate baterako, KITOLIS atala unki-garria dan orretan, sentibera danari negar malkoak isuri azoteko bestekoan.

Ardura aunditan ibili zana igarri-igarrian dago. Bere ume au dan KRESALA sortzeko, itsasoko bagen antzeko ugain urtsu bizi sakonek itsasazala orraztu daroen eran, kontu aundiz, eztitasunik gozonenaz, maitasun bikain bereziaz egiten aalegin aundiak egin ebazana, argi ta garbi dagerku. Bere jakitu-

ri ta eskurik onena zeregin oneri eskeini eutsozan. Biotzaren ondo-ondotik urten eragindako umerik kutunena ebana, guzurrik esan barik, baieztatu geinke eta. Bere bizitzearen laburpena izan leitekena, edo berak, bere bizitzeak zer izan bearke eukean gura izan eukeana.

KRESALA, elebarri au, niretzako guztiz liluragarria izan da eta barriro irakurriko dodala berba emoten dautsuet.

6.- BIBLIOGRAFIA

- KRESALA - Txomin Agirre - 1986ko argitalpena. Labairu Ikastegiak SUTONDOAN bilduman argitaratua. Jon Arretxe ta Miren Alberdik eratua.
- KRESALA - Txomin Agirre - 1967ko argitalpena. Arantzazuko Frantzizkotar Argitaldariak argitaratua. Luis Billasantek eratua.
- KRESALA - Txomin Agirre - 1988ko argiltape-na. Euskal Editoreen Elkarteak KLASIKOAK bilduman argitaratua. Jon Arretxek eratua.
- BIZKAIKO EUSKAL IDAZZLEAK - Mikel Zarate - 1970eko argitalpena. Derioko Seminarioko Ikasetxeak argitaratua.
- LITERATURA 11 - Alkarlanean - 1985eko argitalpena. Labairu Ikastegiak argitaratua.
- LITERATURA II - Alkarlanean - 1986ko argitalpena. Labairu Ikastegiak argitaratua.

Iniaki MARTIARTU

**Prieto Urrutia'tar Iñaki'ri
"KRESALA"ren AZTERKETA'n**

Arrain eder bat itxas barruan
sartzen dan giro antzera,
euskal parnason aurkitu zendun
atsedenezko arnasa;
igeri doa arrain zuria
itxas zabala zearka,
ugerka doa zure gogoa
euskeraren biotzera.

Txomin Agirrek agertu zitun
itxaso edertasunak,
zuk atsegiñez, jaso dituzu
gizon aren itxas garrak;
itxasoaren eder gutzia
iruntzi dau idazkortzak,
jakintsu aren irakatsiak
gorde euskal entzuleak.

Paulin

**ATZO AMAITU ZAN EUSKERAZALEAK
ALKARTEAREN BILBOKO EUSKAL
ASTEAA**

Euskerazaleak

BILBO. Atzo amaitu zan Euskerazaleak Alkartea'k antolatutako Euskal Astea. Egunero lez, Zubiri'tar Iñaki Alkartearen Lendakariak egin eban izlarien aurkezpena: Prieto ta Urrutia'tar Iñaki, asmatzaillea edo injenieru gaztea dogu. Bilbao'tarra jaoitzaz eta aspaldiko urteetan idazlea. Bere idazlanak Egunkarian eta Zer aldizkariak agertzen dira eta bere euskal-zaletasunaren ezaugarri lez, bere Ikasketaren azkeneko egitasmoa euskeraz agertu ebala esan eban Zubiri'k. Bear ba'da lanengoetarikoa izango zan olako idazki bat euskeraz aurkeztean.

Bere gaia ondo mugatua ta zeaztua izan zan: Txomin Agirre'ren Kresala elebarria.

Liburu ori Bizkai'ko elerti edo literaturaren eredu lez agertu eban izlariak, eta liburuari egin eutson azterketa edo emon eban iruzkiña sakona ta zeatza izan zan.

Alkar-izketa izan eta Paulin'en bertsoak entzun ondoren amaitutzat geratu zan aurtengo Euskal Astea.

Zubiri Alkartearen lendakariak eskerrik berona agertu eutsen izlariari, Euskal-Astera etorri diranai, bioz zabalaz euren etxea itzi dauskuen Lekaide Eskolapiotarrari eta Euskal Aste au ospatzeko laguntza emon daben Bizkai'ko Aldundiari ta Bilbao'ko Udal-Batzari. Eskertzekoa da baita DEIA'k eta Bizkai-Irratiak zabal-kundetarako emon daben laguntza.

DEIA 94-11-18

**B IZKAITARRAI
BIZKAIERAZ**


IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-ko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dau-tzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta di-rala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2^o, eskoia. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.


EUSKALDUN BARRIENTZAT




Fermin'ek itaundu dautso Purita'ri ea nor dan bere gizon kutuna, eta berak "laberinto" onegaz erantzun dautso.

Zuk, izki bakoitza bere lekuan ondo ipinten badozu, erantzungo dautsozu Fermini.

Badakizu nortzuk margoztu ebezan onek?



Qssitatd -
zanbzr laA - g
TiA up op.znuoa-T - d



Lotu zenbaki onek, eta marrazki bat, agertuko jatzu.

KARMELE

BALENDIN URIARTE

BERMEO

Itxas ertzean tinko ta ernai
dago Bermeo erria,
Kantauri itxaso zabal guztian
arrantzan beti nausia.
Itxas zelaian erakutsi dau
benetan fede bidea,
Euskal errian Bermeo izan da
gure kaia ta atea.

ERRI OSPATSUAK

Badira mundu ontan izen aundiko erriak. Gure artean Bermeo da bat. Nundik sortzen da errien entzute ona? Seme alaba jator ta bikaiñengandik. Emen egoki-ro esan daikegu Sirak Liburuagaz: "Goratu daiguzan ospatsu izan diran gizonak; euren errietan artez agindu ebenak; gizon ospatsuak euren eginkariakaitik; onulariak euren zuurtasunagaitik; profetak euren profeta doaiagaitik; errietako nagusiak euren begi zorrotzagaitik; buruzagiak, euren zorrotzasunagaitik; pentsalari jakintsuak euren idaz-lanakaitik; olerkariak eta eresiak idatzi ebezanak".

Bermeo erriak beti izan eta emon ditu seme-alaba argi ta bikaiñak, lurbira guztian bere izena gorengo maillan jarri dabenak. Orra or Alonso Erzilla Zuñiga, eta beragaz batera, eta bere moduan, gizadi osoan aipagarri izan diran itxas-gizon trebeak, lege-gizon txit argiak, mixiolari santu ta gartsuak, eliz-gizon agurgarriak.

BALENDIN URIARTE

Balendin Uriarte, franzikotar mixiolaria, Bermeo'n jaioa dogu (1892) Peru'ko kondairan bere izena aintzat artua dago. Zergaitik? Bere mixio jokabide guztietan errien aurrerapenaren alde alegindu zalako.

Luzeegi joko genduke bere bizitza osoaren barri emoten asi ezkerro. Oker bildurrik barik esan geinke aita Balendin Peru'ko mixioetan aspertu barik ibilli zala, erririk erri, Kristo'ren Barri Ona eta erri guztien aurrerapena biotz barruetaraño eroaten.

Biotz ederraren jabea zan, eta barrua sutan dagoanean, garra berez agertzen da. Egia esateko errialde onetan badago zeri ekiñ eta nori mesedeak egiñ. Jaunaren maitasunak eraginda, biotz-gunez, maitasun osoz eta gogo betez jokatu dau gizaseme guztien alde.

Noiz etorri zan Peru'ko mixioetara? 1925'garren urtean. Gaztetatik sortu zan bere biotz bigunean mixiolari izateko grazia ta Jaunaren deia, eta franzikotarren artean eliz-ikasteak egiñik abadetu egin zan (1920).

Gure artean esaten oi da: "bazterretik bazterrera... eta mundu zabalera". Bai, makiña bat euskaldunek, emengo bazterrak utzita, mundu zabalera egoak astindu ditue. Eta ondo eta onerako astindu be, euren izatea ta izakerea, euren gaitasunak eta ekiñ-bideak, euren sinismena ta egin-gaitasuna gora ta gora jasoteko, baita be gizadia argitzeño.

Aita Balendin'ek Peru'ra etorririk, lenengo jardunaldiak Ocopa, Andamarca, Pampahermosa, Satipo ta Puerto Ocopa errietan izan zituan. Geroago baten basarreka zear, baso sakonetara sartu zan. Emengo lagunenen artean zer ikusten dau? Sinismen bakoak baño geiago, nortasun bakoak dirala. Zer egiñ?

Egizko Kristau bidea artzeko, giza-bidea burutan artu bear da. Auxe izango da aita Balendin'en jokabide argi ta zintzoa.

Peru'ko agintariak aita Balendin'en mixio-lanak aintzakotzat artu ebezan, batez be, ekiñaldi onexegaitik: Pucalpa izeneko erri kaxkar ta bazter baten mixio-etxea egiñ, emengo biztanleai biotz ta kemen barria emon, ikastetxeak eraiki, basetxetik basetxera ibilli, Kristau fedea ta giza-bidea barne muiñetaraño sartu, auzo-lanak, alkar-lanak, eta erri-lanak egiten, erakusten eta eragiten saiatu.

Gaur egun Pucalpa uri aundi, oparotsua eta aberatsa da. Bere oñarriak euskaldun seme baten izerdiaz murgilduta dagoz.

Ez izerdiaz bakarrik. Areago ainbeste ta ainbeste neke-miñakin eta ezbearrakin. Bere leloa auxe izan zan: "Sekulan ez parkatu zeure buruari, besteari beti".

Bere mixio lanari buruz idaz-lan eder ta mamin-tsuak idatzi ebazan aldizkarietan. Lima uriburuan il zan 74 urtekin (1967).

Bermeo'ko seme leial, argi ta santu oni omenik beroena.


Uriguen'tar Zenon





Colón de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO

Akelarre. Nestor Basterretxea



BAT GATUZ EUSKAL KULTUREAGAZ

Erakundearen konpromezutzat
artuten dogu, geure erri onen
arimeagaz bat egitea. Orrexegaitik
lagunduten deutsegu gogo osoz,
geure nortasun berezia indartuten
deuskuen kultur adierazpenai.

Eta aparteko arreta iminten
deutsagu, kultur adierazpenen
artean, gure ezaugarririk gorena
dan euskerearen garapenari.

EZ DAGO GEIAGO ESKINTZEN DAUANIK

BBK

Bilbao Bizkaia Kutxa